Kareaga Goikoa 52, 48970 Basauri 944666313 www.basauri.eus secretaria@basauri.eus

## ZIURTAGIRIA

María Amalia Urrutia Elorduy, Basauriko Idazkari Nagusiak, ZIURTATZEN DUT, 2024ko otsailaren 29an egindako OHIKO OSOKO BILKURAN, Basauriko Udalak batzarreratuen gehiengoz, bere eguneko ordenaren 4. puntuan ondoko akordioa adostu zuela.

**4.- AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEN EBAZPENA ONARTZEA ETA BASAURIKO UDALAREN 2024ko EKITALDIKO AURREKONTU OROKORRA BEHIN BETIKO ONARTZEA.**

"Zinegotziek badute hauxe dioen proposamenaren berri:

1. 2024ko otsailaren 6an, hasieran onartutako aurrekontuaren aurkako erreklamazio-agiria erregistratu zuen jaunak Basauriko Udalean.

2. Aldez aurretik adierazi behar da Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru-Arauaren 17.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, arrazoi hauengatik soilik aurkeztu ahal izango direla aurrekontuaren aurkako erreklamazioak:

a) Gertuketa eta onespena arau honetan ezarritako izapideei lotuz ez egitea.

b) Legezko manua edo legebidezko beste edozein titulu dela bide erakundeari eska dakizkiokeen betebeharrak betetzeko behar den kreditua alde batera uztea.

c) Sarrerak ez izatea nahiko aurrekontuko gastuei aurre egiteko, edo gastuak ez izatea nahiko beharrizanetarako.

## CERTIFICADO

María Amalia Urrutia Elorduy, Secretaria General del Ayuntamiento de Basauri, CERTIFICA, que en el Pleno ORDINARIO celebrado el 29 de febrero de 2024, se aprobó por mayoría en el punto 4 del orden del día, el siguiente acuerdo cuyo contenido se transcribe.

**4.- APROBACIÓN DE LA RESOLUCIÓN DE LAS ALEGACIONES PRESENTADAS Y DE APROBACIÓN DEFINITIVA DEL PRESUPUESTO GENERAL DEL AYUNTAMIENTO DE BASAURI DEL EJERCICIO 2024.**

"Las y los ediles conocen la propuesta que dice:

1. Con fecha 6 de febrero de 2024, se ha registrado la entrada en el Ayuntamiento de Basauri el documento de Reclamaciones al Presupuesto inicialmente aprobado, registrado por D. .

2. Con carácter preliminar, debe ponerse de manifiesto que según lo establecido en el art. 17.2 de la Norma Foral 10/2003, de 2 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Bizkaia, únicamente podrán entablarse reclamaciones contra el Presupuesto:

a) Por no haberse ajustado su elaboración y aprobación a los trámites establecidos en esta Norma.

b) Por omitir el crédito necesario para el cumplimiento de obligaciones exigibles a la entidad, en virtud de precepto legal o de cualquier otro título legítimo.

c) Por ser de manifiesta insuficiencia los ingresos con relación a los gastos presupuestados, o bien éstos respecto a las necesidades para las que estén previstos.

3. Aurreko b) atala eta ekonomia zirkular baterako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 7/2022 Legearen 25. artikulua kontuan hartuta, erreklamazio-idazkiak eskatzen du 2023ko abenduaren 28an hasieran onartutako aurrekontua birformulatzea, 1623 – Hiri-hondakin solidoen tratamendua programa funtzionaleko partidak handituz, honako zeregin hauek biltzeko:

- Hondakin organikoen edukiontziak ixteko sistema martxan jartzeko eta herritarrei txartelak banatzeko, edukiontziak ireki eta itxi ahal izan ditzaten.

- Laginketa bat egiteko, edukiontzi horietan uzten diren hondakin desegokien ehunekoa eta izaera ezagutzeko.

3. Invocándose el apartado b) anterior y el artículo 25 de la *Ley 7/2022 de residuos y suelos contaminados para una economía circular*, el escrito de reclamaciones solicita que el Presupuesto aprobado inicialmente el pasado 28 de diciembre de 2023 sea reformulado, incrementándose las partidas del programa funcional 1623 – Tratamiento de residuos sólidos urbanos a fin de recoger las siguientes tareas:

- Poner en marcha el sistema de cierre de los contenedores de residuos orgánicos y el reparto de las tarjetas para abrirlos a los ciudadanos.
- Realización de una muestra para conocer el porcentaje y naturaleza del depósito de residuos inadecuados en dichos contenedores.

4. Kontratazio eta Zerbitzu Arloari helarazi zaio gaia, arlo horrek baitu 1623 programaren aurrekontu-erantzukizuna, Aurrekontua Betearazteko Arauaren arabera. Arlo horrek egindako txostenaren arabera, 1623 programak ez du benetan jasotzen jarduera horietarako behar den kreditua, izan ere, 1722 eta 1723 programetan dago jasota, Ingurumen Arloaren ardurapean.

4. Se ha trasladado la cuestión al Departamento de Contratación y Servicios, que ostenta la responsabilidad presupuestaria del programa 1623 conforme a la Norma de Ejecución Presupuestaria. Según informe remitido por dicho departamento, el programa 1623 no recoge efectivamente el crédito necesario para dichas actuaciones sino que el mismo está recogido dentro de los programas 1722 y 1723, bajo la responsabilidad del Departamento de Medio Ambiente.

5. Ildo horretan, aipatutako txostenean jasota dago, era berean, Ingurumen Arloak berak bidalitako txostena. Hauxe dio:

Alegazioak ikusita, Basauriko Udaleko Ingurumen Arloak jakinarazi du badagoela aldez aurretik kreditu nahikoa bi jarduerak gauzatzeko, eta erabilgarri dagoela; 2024ko ekitaldi honetarako aurrekontu-partida hauetan jasota daude kreditu horiek:

5. En este sentido, en el informe mencionado se hace constar asimismo el propiamente remitido por el Departamento de Medio Ambiente, que señala lo siguiente:

*Vistas las alegaciones, el Departamento de Medio Ambiente del Ayuntamiento de Basauri informa sobre la existencia previa y disponibilidad de crédito suficiente para la ejecución de ambas actuaciones, que se encuentran recogidas dentro de las siguientes partidas presupuestarias para el presente ejercicio 2024:*

Kareaga Goikoa 52, 48970 Basauri 944666313 www.basauri.eus secretaria@basauri.eus

| ***Arloa***<br><br>***Área*** | ***Partida***<br><br>***Partida*** | ***Deskribapena***<br><br>***Descripción*** | ***Zenbatekoa***<br><br>***Importe*** | ***Partidan jasotako jarduera***<br><br>***Actuación incluida en la partida*** |
|---|---|---|---|---|
| *23.1723* | *22739* | *Ingurumenaren aurreko kontzientziazio kanpaina. 2030 AGENDA. INGURUMENA*<br><br>*Campaña de concienciación medioambiental. AGENDA 2030. MEDIO AMBIENTE* | *60.207,42* | Edukiontziak ixtea eta txartel adimendunak ematea.<br><br>*Cierre de contenedores y entrega de tarjetas inteligentes* |
| *23.1722* | *22707* | *Azterlan eta lan teknikoak. INGURUMENA. INGURUMENA*<br><br>*Estudios y Trabajos Técnicos. MEDIO AMBIENTE. MEDIO AMBIENTE* | *88.349,57* | Hondakinen laginketa organikoen edukiontzietan.<br><br>*Muestreo residuos en contenedores de orgánica* |

6. Beraz, Kontuhartzailetzak aldeko txostena eman dio Kontratazio Arloko Zuzendaritzaren proposamenari, aurkeztutako alegazioak atzera botatzeari dagokionez.

7. Eta ondorioz, Ogasun, Kontratazio, Ondare eta Gobernantzako Informazio Batzordeari eta Udalbatzaren Osoko Bilkurari **proposatzen zaie ezetsi ditzatela 2024ko aurrekontuei aurkeztutako erreklamazioak**, eta, jarraian, **behin betiko onartu dezatela** Basauriko Udalaren **2024ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorrak.** "

Kontuan harturik Ogasun, Kontratazio eta Ondare Arloko Ordezkaritzak aurkeztutako alegazioak ebazteko eta Basauriko Udalaren 2024ko ekitaldiko Aurrekontu orokorrari behin betiko onarpena emateko akordio-proposamen bat landu duela, eta Ogasun, Kontratazio, Ondare eta Gobernantza Publiko arloko Informazio Batzordeak horri buruzko irizpena eman duela, Udalbatzaren Osoko Bilkurak honako hau **ERABAKI DU** gehiengo batez:

**LEHENENGOA.-** 2024ko aurrekontuei aurkeztutako erreklamazioak ezestea.

6. Por lo tanto, desde Intervención se informa favorablemente la propuesta de la Jefatura del Departamento de Contratación, en el sentido de desestimar las alegaciones presentadas.

7. Y en consecuencia, **se propone** a la Comisión Informativa de Hacienda, Contratación, Patrimonio y Gobernanza y al Pleno de la Corporación, **la desestimación de las reclamaciones** presentadas a los Presupuestos de 2024 **y**, a continuación, **la aprobación definitiva de los Presupuestos Generales del ejercicio 2024** del Ayuntamiento de Basauri. "

Considerando que Delegación de Área de Hacienda, Contratación y Patrimonio ha elaborado una propuesta de acuerdo para la resolución de las alegaciones presentadas y de aprobación definitiva del Presupuesto general del Ayuntamiento de Basauri del ejercicio 2024, que ha sido dictaminada por la Comisión informativa de Hacienda, contratación, Patrimonio y Gobernanza Pública, el Ayuntamiento Pleno, por mayoría, **ACORDÓ**:

**PRIMERO.-** Desestimación de las reclamaciones presentadas a los Presupuestos de 2024.

**BIGARRENA**.- Basauriko Udalaren 2024ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorrak behin betiko onartzea, 2023ko abenduaren 28ko Osoko Bilkurak hasieran onartutako termino berberetan.

**HIRUGARRENA**.- Behin betiko onartutako 2024ko Aurrekontu Orokorra arauaren arabera argitaratzea, aurrekontu orokorra osatzen duten aurrekontu bakoitza kapituluka laburbilduta, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean, eta horren kopia bat bidaltzea Bizkaiko Foru Aldundiari, dagozkion legezko ondorioetarako.

Eta jasota gera dadin, eta dagozkion ondorioak eragin ditzan, Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu Araubide Juridikoaren Araudiko 206 artikuluan aurreikusitako salbuespenarekin, egiaztagiri hau egiten da, Alkate Jaunaren aginduz eta bere oniritziarekin.

**SEGUNDO**.- Aprobación definitiva de los Presupuestos Generales del ejercicio 2024 del Ayuntamiento de Basauri, en los mismo términos en que fue inicialmente aprobada por el Pleno de 28 de diciembre de 2023

**TERCERO**.- Proceder a la publicación reglamentaria del Presupuesto General de 2024 definitivamente aprobado, resumido por capítulos de cada uno de los presupuestos que los integran, en el Boletín Oficial de Territorio Histórico de Bizkaia, remitiendo copia del mismo a la Excma. Diputación Foral de Bizkaia a los efectos legales procedentes.

Y para que conste y surta los efectos oportunos, con la salvedad prevista en el artº 206 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, se expide la presente, de orden y con el Visto Bueno del Sr. Alcalde